

2009-09-23

Larrepetit

Irati Elorrieta

Hutsunea

Igandean bozkatzera joango dira alemaniarrok -batzuk-. Eta gaia hona badakart, ez da hauteskundeok irrika bereziz jarraitzen ari naizelako. Badute bere garrantzia, Alemania Europar Batasuneko liderretako bat delako eta, indar ekonomikoa duen neurrian, ezegonkortasun politikoak kolokan jarriko lukeelako. Baina oin puntetan eta apenas zaratarik egin gabe iragan da kanpaina. Hauteskunde hauen inguruko giroa oso sintomatikoa iruditzen zait. Eta sintomatikoa ez soilik Alemaniarentzat.

Idea batekin liluratzeko gaitasun eza. Edo inor liluratzeko moduko ideien hutsunea. Ezkerraren eta berdeen alternatibek ere, egingo dute gora baina ez dute lortzen ilusioa piztea. Bide batez esateko, inoiz baino argiago sumatu daitekeen ilusio falta, Obamaren hautagaitzak duela urtebete eskas sortu zuen aztoramenarekin konparatzean. Hemengo politikariek ondo dakite ezin dutela antzeko itzaropen girorik sortu. Premisa kontrakoa baita: ahalik eta eduki gutxien duten adierazpenak egin, badaezpada. Hala ere, beren slogan politikoek Obamaren estiloa imitatu nahi izan dute eta *Yes, we can* arrakastatsuen plagioak irakurri ahal izan ditugu karteletan. Adibide modura, gobernuan egoteko aukera handienak dituztenen esaldiak: «Gure herriak gehiago ahal du» (SPD), «Alemaniak hobeto ahal du» (FDP), «Indarra daukagu» (CDU). Subjektu bat, gu, gure herria, Alemania, eta ondoren, bigarren zatian, zerbait positiboa. Baina gero, positiboak izateko dauden arrazoiak azalduko dituen diskurtsorik ez dago. Eta itzaropena, zerbaitekin elikatu behar da.

(p.s. Piratak izeneko alderdia agertu da lehenengoz. Ikusteko dago, ez ezker ez eskuin izan nahi ez duten internauta hauek %5 gaindituko duten).

2009-06-24

Larrepetit

Irati Elorrieta

Neukoellneko Ibrahim

Kamera aurrean bi mutiko beltzaran ganberroarena egiten, turkiar azentuz alemanez harrokeriak esaten. *Grabatzen!* Tente jarri da bikotea, serio, eta ezkerrekoak hartu du hitza: «Ibrahim naiz eta 13 urte ditut. Oso ikasle txarra nintzen, piper egiten nuen, ez nuen eskolan inongo interesik. Pentsatzen nuen, eskola, zertarako? Bigarren hezkuntzako zentro batean nago. Hona etortzen naiz egunero etxeko lanak egitera, eta orain, zazpigarren mailan, institutuko ikasle estatusa lortu dut. Selektibitatea gainditu eta ikasketak egin nahi ditut». Kamerari so geratu da. Begi beltz biziak eta hortz bihurriak ditu. Bukatzean, buelta hartu dute eta, kamera artean piztuta dagoela, Ibrahim-ek eskumuturra jasoz «diru gehiago hezkuntzarako!» egin du aldarri. Alemania osoan 100.000 edo 200.000 ikasle (ez dago argi zenbat, baina asko) 70 hiritan kalera atera diren egun berean. Lehengo astean hasi den ikasleen grebako lelo nagusia da «hezkuntza denontzat, eta dohain!». Haren aldaerak, «bankuen ordez, hezkuntza!» edo «guraso aberatsak denontzat!».

Egunero 40 ume laguntzarekin etxeko lanak egitera etortzen dira gune honetara. Berlineko auzo behartsuenetakoan kokatuta dago, Neukoelln-en (hirutik batek jasotzen du laguntza soziala eta %35ek ez dute jatorri alemaniarra). Halako proiektuak berandu hasi dira, gutxi daude, finantzaketa pribatura jo behar dute eta, noski, ez daude ziurtatuta. Ibrahim, ahal duen guztietan jartzen da kamera aurrean. Notak hobetu ditu, baina, batez ere, autoestimua irabazi eta diskurtsu politiko sozial bat barneratu du. Horrek emango dio gizartean parte hartzeko aukera

2009-05-13

Larrepetit

Irati Elorrieta

Zenbat buru...

Izozki dendako jabeak bere denda aurrean dauden bi neskari musuka aritzea debekatzen diela? 2.000 homosexual agertzen dira intolerantziaren aurka protestatzera, 50 bikoteren muxu-erakustaldi batekin. Naziak jai bat ospatu behar dutela? 2.000 ezkertiarrek eserialdi batekin geltokia okupatzen dute eta naziak ezin dute elkartu. Berlin ez da Wonderland. Arazoak daude, erasoak ere bai. Noski.

Orobat tolerantzia da eguneroko bizitza. Norberaren bizitza antolatzeke arauak ez dira zurrinak. Beste leku askotan atzamarrarekin seinalatuko zirenak, inork erreparatu gabe ibiltzen dira. Ez dago bikote mota arrarorik. Ezkondu nahi dutenez, ospakizunak egiteko milaka modu daude. Etxea *jartzeko*, beste hainbeste. Larunbat gaueko plana guztiz aukerakoa da, asteko beste egunetakoa bezala. *Polita* eta *itsusia* kategoriak banalak eta trukagarriak dira. Beste leku askorekin alderatuz, presio sozialarekin harreman eskasa izatea eskura dagoen aukera da. Umeen artean, agian ez horrenbeste. Eta umeen kontuan, adin bateko helduentzako ere zail samar bihurtzen da presio sozialari ihes egitea. Berlin ez da alferrik *baby-boom*-aren hiria. Haurdun dauden 2.000 emakume ikusiko dituzu egunero zure inguruan. Bikotea izan zein ez, adinean bazaude, ez duzu bakerik izango galderatxoarekin: *eta zu, noiz izango zara ama?* Lagun biktima batek esaten zidan lehengoan: *zer uste dute, kutsagarria dela, ala?* Beste batek: *zer frogatzen dute tripa handi horiekin? Emakume emankorrek direla, besterik ez!* Ama izan nahi ez dutenek mesfidantza eragiten dute. Beste edozer gauza txintik gabe onartzen duen inguruan, azalpenak eman behar izaten dituzte.

2009-04-29

Larrepetit

Irati Elorrieta

Aukerak

Berlingo azken erreferenduma *Pro Reli* eta *Pro Ethik* artekoa izan da. Nahasgarriak izan dira kanpaina egiteko erabili dituzten kontzeptuak: Aukera askea (-ri bai) eta derrigorrezko aukera (-ri ez). Lehenengoek proposatu dute ikasleei aukeratzeko askatasuna ematea. Bigarrenek erantzun dute hori ez dela askatasuna, derrigorrezko aukera baizik. Nik neuk ez nuen lehengoan harrapatu, eta -errepikatzeko arriskuarekin- bigarren buelta batean azalduko dut: Aukera askeak esan nahi du etika edo erlijioaren artean aukeratu BEHARRA. Aldiz, kontrako botoak, etika soilik egitea EDO erlijioarekin konbinatzeko aukera defendatu du, bien artean aukeratzera derrigortu gabe. Hitz joko bihurriak direla tarteko, betiere kontu handiz ibili behar izaten da erlijioaz jendaurrean hitz egitean. Bestela, berehala entzun behar izaten da haren kontra ari zarela.

Hiri multi-kulturala eta multi-erlijiosoa izanik, Berlinek etika ezarri zuen denek elkarrekin hartu beharreko eskola gisa. Norberaren gustuko erlijio eskola hartzeko aukera ERE ematen duen arren. Hori da egun 7. eta 10. mailetarako indarrean dagoen eredu, eta horri eutsiko zaio. Herri galdeketak ez baitio babes eman derrigorrezko eskoletan ikasleak fedearen arabera banatzeari. Alde batetik, jende gutxiegi joan delako botoa ematera, eta, bestetik, joan direnetatik gehienek ezetz esan dutelako.

Botoak gorabehera, debate zaratatsua izan da hirian. Eta ikusgarri egin du gaurkotasun handiko

gaia dela balioen transmisioa egiteko moduen kontua. Argi utzi ditu batzuen zein besteen kezkak.